



PRENTSA-OHARRA

2023an jasangarritasuna da Museoaren jardunaren zeharkako ardatza; azken helburua, beriz, 2030ean neutraltasun klimatikoa lortzea

Guggenheim Bilbao Museoak bertako langileentzat material birziklatuz egindako Ecoalf uniforme berriak aurkezten ditu

Guggenheim Bilbao Museoak, museoen sektorean aitzindari den bere jasangarritasun-planaren barruan — 2030rako karbono-neutraltasuna lortzeko konpromisoa hartzen duena—, Ecoalf markako uniforme berriak aurkezten ditu, material birziklatuekin eginak. Gaurtik aurrera jantziko dituzte uniforme horiek. Txarteldegian, Informazio-mahaietan eta Denda/Liburudendan bisitariei arreta ematen dieten langileek, baita Segurtasunekoek ere.

Uniforme berria aukeratzekoan, diseinuaren kalitateaz, jantzien erosotasunaz eta moldakortasunaz gain, Museoak oso kontuan izan du jasangarritasuna, hala bere jardunak ingurumenean duen eragina maila guztietan minimizatzeko erabakian aurrera egiten jarraitu ahal izateko. Ildo horretan, materialen berrikuntzaren bidez zirkulartasunaren alde egiten duen apustuagatik aukeratu du Museoak Ecoalf etxea.

Hain zuzen ere, uniformeek bilduma ekoiztean 24,5 milioi litro ur aurreztu dira guztira (hau da, merkatuko batez bestekoarekin alderatuta, % 71 gehiago aurreztu da) eta 1,3 tona CO₂ baliokide guztira (hau da, merkatuko batez bestekoarekin alderatuta, % 39 gehiago aurreztu da). Jantziak material birziklatuz, inpaktu txikiko materialez eta monomaterialez eginak daudelako lortu ahal izan da hori: % 100 birziklatutako poliesterezko jakak, % 100 birziklatutako kotoizko kamisetak eta jertseak, poliestere birziklatuarekin egindako oinetakoak, eta kotoi birziklatuarekin egindako poloak. Beren bizi-zikloaren amaieran berriro birziklatu daitezkeen jantziak dira, zirkulartasunaren helbururantz aurrera egiteko aukera ematen dutenak.

Ozeanoaren koloreak inspirazio-iturri

Guggenheim Bilbao Museoko uniformeak 2023ko udaberri/udako bildumakoak dira. Bildumak “Lost Colors” izena du, eta ozeanoetako koraleen kolore distiratsuak (arrosa laranja-kara, urdina eta zuria) irudikatzen ditu; tenperaturen eta kutsaduraren gorakadaren ondorioz desagertzen ari diren koraleenak, alegia.

Guggenheim Bilbao Museoko zuzendari nagusi Juan Ignacio Vidarteren hitzetan, “gaur aurkezten ditugun uniformeak Museoaren jardunak ingurumenean duen eragina —maila guztietan eta epe labur, ertain zein luzean— minimizatzeko erabakiaren adibide zehatza dira. Duela urtebete inguru gure Jasangarritasun Plana aurkeztu genuenetik, gure karbono-aztarna murrizteko bidea hartu dugu gure jardunaren zeharkako ardatz gisa. Horretarako, gure erakusketetatik eta aurrera eramaten ditugun prozesutatik eratorritako isuriak neurtzen eta murrizten ari gara, energetikoki jasangarriak diren soluzioak ezarrita eta gure jarduna ekoeraginkortasunera bideratuta. Zalantzarik gabe, gure balioak erabat partekatzen dituzten bidelagunek, Ecoalfek esaterako, lagundu egiten digute gure erronkan hobetzen eta aurrera egiten”.



Bestetik, Ecoalfeko presidente eta sortzaile Javier Goyenechek adierazi duenez, “Ecoalfentzat ohore handia da bizimodu jasangarriaren inguruan dugun filosofiarekin bat egiten duten proiektuetan lan egin ahal izatea, bai bertan bai nazioartean entzute handikoa den erakunde batekin lan egin ere. Guggenheim Bilbao Museoa aldaketaren parte izan nahi duten erakundeen adibide da, eta Planetako baliabide naturalekiko errespetu handiagoa duen mundu jasangarriagorantz aurrera egiten ari da”.

Museoaren Jasangarritasun Planari buruz

Guggenheim Bilbao Museoa etengabe egiten du aurrera eraginkortasun energetikoari dagokionean, eta 2030erako karbono-emisioetan % 100 neutroa izateko konpromisoa hartu du. Hori erronka handia da bere arlo guztietan: eraikinaren mantentze-lanetan eta klimatizazioan zein erakusketen eta hezkuntza-jardueren antolaketan, bai eta dendan eta jatetxean ere.

Karbono-aztarna (zeharkako isuriak barne) neurtzen duen aurreneko museoetako bat da nazioartean. 2019az geroztik, Museoa artelanen garraioak eta langileen joan-etorriek eragiten dituzten CO₂ isuriak kalkulatu ditu, eta 2021az geroztik, enbalajeen fabrikazioak eta erakusketen ekoizpenak eragiten dituztenak ere neurtzen ditu. Kalkulu horrek aukera ematen dio ingurumeneari duen inpaktua ezagutzeko eta jasangarritasunaren arloko urteko ekintza-planaren helburuak ezartzeko.

Nazioarte mailan, Museoa aitzindaria da tenperatura eta hezetasuna kontrolatzeko parametro klimatikoak malgutzen (energia asko aurrezten laguntzen du horrek), eta bestelako ekimenak ere jarriko ditu abian aurretik; esaterako, panel fotovoltaikoak instalatuko ditu, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak jarriko ditu Museoaren inguruan.

Informazio gehiagorako: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/museoari-buruz/jasangarritasuna>

Ecoalf etxeari buruz

Ecoalf 2009an jaio zen, birziklatu gabeko produkturik onenen neurriko kalitatea eta diseinua duten produktu birziklatuen belaunaldi berri bat sortzeko helburuarekin. Azken hamar urteetan, bere leloaren — BECAUSE THERE IS NO PLANET B®— sinonimo bihurtu da marka, eta 500 ehun birziklatu baino gehiago garatu ditu, plastikozko 6,7 milioi botila baino gehiago, baztertutako tonaka arrantza-sare, pneumatiko erabiliak, milaka tona kotoi, artile postindustrial eta abar berrerrabiliz, eta 17,6 mila milioi litro ur baino gehiago aurreztu ditu 2023ko udaberri/udako bilduman.

2015ean, bere Fundazioaren bitartez, *Upcycling the Oceans* proiektua hasi zuen Ecoalfek. Espainiako kostaldean sortua, mundu mailako abentura bihurtu da itsas hondotik hondakinak kentzen laguntzeko 4.300 arrantzaile egin duten ahalegin kolektiboari esker; 1.000 tona hondakin baino gehiago berreskuratu dituzte. 2018az geroztik, Ecoalf harro dago B Corp komunitateko kide izateaz: gizartearen eta ingurumenaren arloko jardunean estandar gorenak eta egiaztatutako betetzen dituzten enpresak biltzen dituen komunitatea da B Corp.